
ERLEA TA SASIA

ERLEA

Erle ertilaria
amets girotan doaz
egazka aidean,
zeru urdiñez dabiltz,
aizea gozaturik,
eguzki aurrean.

Adiskide on dira,
goizez, eguzkipean
eundezka izarrak,
poza ta ariñak,
edonora, daroaz
urratuz aideak.

Mendi egal liraiña,
on, dago eguzkitan
dizdira ederrez,
gozamina dario
alderdi danetatik
erlearen pozez.

Goizalde zoragarri,
gutziz, dotore dator
soiñeko urdiñez,
itxaso ta zerua
biak bat egin dira,
txit, edertasunez.

Ta erleak, goizetik,
langille zintzo dabiltz
zelai orleietan,
lorerik lore doaz
zurtasun guztiagaz
egazka aidetan.

Zurtasunak aginduz,
ezti gozo aurrean
geratuten dira,
klik-klak, ekin ta ekin,
lepoak betetuta,
ba-doaz kabira

SASIA

Solo ertzetan dagoz
sasitza nagusiak,
gogotsu, indarrez,
solo ertzak zaintzeko
bizigarriak dira
osasun ederrez.

Udarantz adi dago,
eguzkia maite dau
biotz barrenetik,
dizdizera ederrez,
pozik, agertzen da,
barrez, sasitzatik.

Gero ta sendoago,
pozik, zabaltzen doa
solo magalean,
solo maitalea da
eguzkia gozartuz
biotz barrenean.

Sasitz bildurgarria
udara adi dago
bere asmoakaz,
lurra eskertu nai dau
adiskidetza onez
lorak emonagaz.

Sasitza sendoena
lora zuritan dago
udalen goizian,
gorantza begiraturik,
indartu egiten da
lorea sasia.

Lorea garautu da
masusta biurturik
asmo onenagaz,
gosetientzat jana,
gozo gozo, eginda
eguzki argiaz.